

## 1- XABIER IRIDOY OLAIZOLA

Irunen jaio zen 1961eko urtarrilean. 50 urte ditu eta euskalduna da.

Ezkondua dago eta bi seme-alaba ditu.

Alderdikidea da, 1994. urtean afiliatu zen EAJ-PNVn. Urte batzuetan Irungo Batzokiko Uri Buru Batzarreko kide ere izan da.

2011ko urtarrila arte Irungo La Salleko zuzendari izan da (Irungo La Salle eta La Salle San Marcial-en bat-egitearen ondoren).

### PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA

- Informatikan lizentziatua
- Euskara: *EGA (Euskararen Gaitasun Agiria)*
- Ingelesa eta frantsesa erabiltzaile mailan

### IBILBIDE PROFESIONALA

1984an informatikako irakasle bezala hasi zuen bere jarduera Irungo La Salle Lanbide Eskolan.

1996-2003 urte bitartean Irungo La Salleko Prestakuntza Ez Arautuko arduraduna izan zen, Langaiko koordinatzailea, eta Lanbide guneetako Formazioaren arduraduna Irungo La Sallen.

1999an Irungo La Salleko Zuzendaritza Taldean sartu zen eta 2003an zuzendari izendatu zuten.

Irungo La Salle eta La Salle San Marcial-en bat-egite juridikoaren ondoren, Irungo La Salle heziketa zentru handiko Zuzendaritza Orokorren ardura hartu zuen bere gain.

### BESTELAKO JARDUERAK

IKASSOFT heziketa software-aren garapenerako eta zerbitzu informatikoetako mikroenpresako sortzaile eta bazkide da (1988-1993 urteetan).

1997-1999 bitartean Foro Irun XXI kultur elkarteko lehendakaria izan zen.

Irungo La Sallen egindako lanari esker, Bidasoa Behea eskualdeko errealitate enpresarialaren inguruan esperientzia zabala eskuratu du, enprekin elkarlan estuan ibiliz eta prestakuntza eta enplegu saileko Bidasoa Bizirik Garapen Agentziako eta Irungo Udaleko teknikari desberdinekin lan eginez.

Kudeaketa gaietan prestakuntza eta esperientzia du, *Euskalit* Bikaintasunerako Euskal Agentziako kanpo-ebaluatzailea izanik.

*INNOBASQUE*ko Ekimen Aurreratua saileko kide ere bada.